

KANTU BAT GARA

Kantu izaeran laburbildu daiteke gure esistentzia. Ehunka urtetan, belaunaldiz belaunaldi ahoz aho, gogorik gogo pasatzen doan arnas bat da, aire bat, sentipen bat. Lotu, erre, zapaldu, kaiolatu, ixildu ezin den adierazpide hori, kantua. kantuetan dago gure historiaren kronika, intimo zein kolektiboa, kantuetan gure penstamendu, kezka eta ametsak.
Kantu bat gara



Kantu bat gara ekimena urteurren baten bueltan sortzen da: Aurten, 2021 urtean, 30 urte betetzen dira Jon Maia Soriak letragile bezala lehen kantua idatzi zuenetik, Negu Gorriak taldeari idatzitako Lehenbiziko bala, hain zuzen ere. Aitzakia horrekin, Jonek diska liburu bat argitaratuko du, bere letragile ibilbidearen antologia bat. Musikari dagokionez, goi mailako musikariez osatutako talde bat sortu du eta berak idatzitako kantuen bertsioak egingo dituzte Jon bera abeslari dela. Liburuak Jonek idatzitako kantu hitzen hautaketa luze bat jasoko du eta egileak berak horietako hainbat iruzkinduko ditu, bere garaiari, sorkuntzari edo kantuak bide ematen duen ezein gairi buruzko kronikak osatuz. Taldeak zuzeneko emanaldietan aurkeztuko du lana Euskal Herriko aretoetan, Kantu bat gara izenareko emankizunaren bidez.

Jon Maiak 30 urteotan Euskal Herriko izen handiko hainbat musikari eta talderen egin dituzte elkarlanak letragile bezala: Negu Gorriak, Gozategi, Gari, Benito Lertxundi, Anari, Mikel Urdangarin, Ken zazpi, Soziedad Alkoholika, Pirritx eta Porrotx, Pello Reparaz, ETS eta abar luze bat, 200 kantu inguruko zerrenda osatuz, gaurko egunera arte, Horrez gain musikaren arloan bi musika talderen sortzaile eta abeslari izan da: Karidadeko benta eta orain oholtzetan ikus daitezkeen Hezurbeltzak taldea. Horrez gain idazle, gidoilari, dokumentalgile eta kazetari gisa hainbat lan argitaratu ditu Zumaiako bertsolariak.

KANTU BAT GARA





NEGU GORRIAK
1990 – 2001



KANTU BAT GARA

taldea



Jon Maia




*Nacho
Soto*



Gorka Hermosa

Pello Ramirez



Diskorako eta emanaldietarako bertsio zerrenda Jon Maiak idatzitako zen-

bait kanturen hautaketa:

Negu Gorriak - Lehenbiziko bala Gora herria

Gari - Zaharra zara Bilbo

Benito lertxundi - Itsasoari begira, Kimu bat

Gozategi - Nirekin, Emoixtaxux muxutxuek, Welcome to beach

Ken zazpi - Itsasoa gara, Oinutsik

SA - Pauso bat

Anari - Minaren funtsa, Zuganako bideak

Pirritx eta Porrotx - Eskuetan

Mikel Urdangarin - Non geratzen den denbora

Pello Reparaz - Aurrera Altsasu

Karidadeko - Benta Amore

Hezurbeltzak - Belarrimotzak

Kantu bat gara poema errezitatua (Belodromoa 2016) etab...

Lur Larraza
info@bideanprodukzioak.com
676 147 088

